



# HERNANIKO EURONET 50/50

PROIEKTUAREN 3. BULETIN ELEKTRONIKOA



## IKASTURTE HONETAN ERE EURONET 50/50 EKIMENEAN PARTE HARTZEN ARI GARA

2019ko irailetik ikastolan energia arduraz eta zentzuz erabiltzea bultzatzen duen egitasmoarekin bat egin genuen. Jakingo duzuen moduan, Elizatxo ikastolak eta Txirrita herri-eskolak ere parte hartzen dute Hernaniko Udalak lagundutako Euronet 50/50en eta jokaera-aldaketa garrantzitsuak lortu ditugu guztion elkarlanari esker. Urumea ikastolaren kasuan, 2016-2017, 2017-2018 eta 2018-2019 erreferentzia-urteak aintzat hartuz, aurreko ikasturtean 400€ aurreztea lortu genuen (kopuru horren erdia zertara zuzendu ikastolan erabakiko dugu eta beste erdia Udalak gure eraikitako energia arloko hobekuntzaren bat egitera bideratuko du) eta aurki adostuko dugu kopuru horrekin ea zer nolako jardura garatu nahi dugun.



Ikasturte berri honi dagokionez, **udazkenean Lehen hezkuntzako etapa guztietako ikasleek gela guztietako tenperaturak neurtu dituzte** eta gomendatzen diren erosotasun termikoko tenperaturekin bat datozen edo ez egiaztatzeko aukera izan dute. Lan guztiak garatzeko orduan ikasleek tresna ezberdinak erabili dituzte; hala nola: aurreko ikasturtean Udalak banatutako termometroak eta datuen bilketarako zein aurrezpenaren kalkulurako diseinaturako jarraipen-orriak. Beste egiteko bat energia aurrezten jarraitu eta ikastolan energiaren erabilera arduratsua bultzatzeko helburuak nahiz ekintza zehatzak barneratuko dituen **ekintza-plana bat diseinatze**ko pausoak ematea izan da. Horretarako, Udalak prestatutako azalpen-bideo bat ikusi genuen eta ondoren on-line galdetegi bat erantzuteko lan-saioak egin genituen. Galdetegien osaketarako parte-hartze maila handia izan da (110 erantzun jaso ditugu!!) eta eskola-komunitatea osatzen dugun eragile ezberdinek parte hartu dugu (Energia-taldeko kideak, ikasleak, irakasleak, zuzendaritza-taldea eta idazkaritza, mantenuko langileak). Beraz, orain jasotako emaitzak aztertuko ditugu eta horiek oinarritzat hartuz, ekintza-planaren edukia adosteko urratsei ekingo diegu Gabonetako oporretan ondoren.

## HURRENGO URRATSAK: EKINTZA-PLANA ETA KONPONBIDEAK PROPOSATZEA

Euronet 50/50 ekimenak proposatzen duen metodologiari jarraituz, ondorengo urratsak burutzea falta zaigu ekimena borobiltzeko:

- Urumea ikastolako energiaren ekintza-plana diseinatzea.
- Ekintza-planean jasotako ekintza bakoitzaren lehentasun-maila adostea.
- Proiektua martxan jarri zenetik hona lortutako emaitza nagusiak komunikatzea.
- Aurreztutako diruarekin zer egin erabakitzea (inbertsio txikia suposatzen duten neurrien proposamena, jokoak, etab.).

Gogoratu ikastolako Txoko Berdean eta web gunean pauso bakoitzaren inguruko berriak eta bestelako informazioa ere ikus dezakezuela.



